

Lizartza karnabalatzaz, galdera erantzun gisa idatzia

IÑAUTERIA ALA KARNABALA?

Karnabal hitza behintzat erderatiko hitza da. Azken aldian Lizartzan eta Tolosan, bestetan bezala, *ihauteria* hitza ere sartu da, baina Tolosan behintzat *Iñauteria* esan izan da beti. Hizkuntzaren batasunerako ondo dago *ihauteria* hitza, baina lekuan lekukoa erabiltzea ere ez ote da bada aberasgarri?

Hori bera gertatzen da *mozorrotua* hitzarekin. Batasunerako ez dago gaizki hitz hori hautatzea, baina beste hainbat izen ere badira: *txatxuak*, *xomorroak*... eta Lizartzan, Tolosan, Abaltzisketan eta inguru hauetan *txantxo* esan izan da beti.

ZERTAN ALDATU DA NEKAZAL GIROKO IHAUTERIA?

Nekazal munduko ihauteriak, jakina da, nekazal munduari erantzuten dio, eta hau beti ibili da makalago, polikiago; aldaketak oso makal ematen direla esan nahi dut honekin. Honegatik, nekazal munduak hobeto eutsi dio ohiturari. Hori txantxo jazteko eran ikus daiteke: nekazal giroko txantxoak bere ingurura joko du txantxotzeko garaian, eta zintzarriak, abere larruak, gazteak uztarrituta... azalduko dira.

Herrietan gizartea aldatu egin da, baina beste alde batera ez. Lizartza esaterako, lehen bezain txikia da. Aldatu dena joan-etorriak egiteko bizkortasuna da, eta hala handiak txikia jan du. Hau kaltegarri da herrian festarako, baina bestela, herri bezela mentalidadea ez da aldatu, Iñauteriaren izatea ere ez.

Honek irtenbidea badu ordea. Belauntzan adibidez, festak Sanjuanetan izaten ziren lehen, baina korpusetara edo aldatu ziren. Zergatik? Tolosak jaten zuelako.

Bestalde interesantea da umeekin aritzea herrian berta, batetik umeak berak giroan sartu daitezen, eta bestetik gurasoak berekin dituelako umeak,

ingurukoak harrapatzen ditu, familia osoa. Hor arazoa eskola-kontzentrazioa da. Gogoan dut Araban galdeketetan aritzen nintzenean Agurain edo Salvatierra inguruko herrixketan nola esaten zidaten: *Si, aquí antes se hacía el Jueves de Lardero –umeeekin festa Ostegun-Gizenean–, salían a pedir los niños y cantaban, pero ahora como no hay escuela, ya no se hace*. Hortaz, eskolak herri-tik kanpora eramatea txarra da ohiturentzat; pedagogikoki ona izango da behar bada, baina herriarentzat oso txarra.

NOLA BERRESKURATU DAITEZKE OHITURA ETA GIRO HORIEK?

Festa antolatzerakoan bizkar-hezur bat egin behar da aurrena, baina bizkar-hezur horren osagarria urtetik urtera aldatuko da eta piskanaka ikusi beharko da zer behar den aurrerantzean. Bizkar-hezur hori izan daitezke dantzak, puskabiltzea, bazkaria (esaerak dioen bezala *después de la panza viene la danza*), gaueko erromeria edo musika,...

Horiek oinarri mugi-ezin gisa jarri gero, ondoren ikusi beharko da zer egin aberasgarri. Hurrengo urtean halako egingo dugu, edo halako, dantzako garaian plazan daudenei ardoa banatu esaterako, eta jendea zerk erakartzen duen ikusi.

Hori bai, berreskuratze hori ezin da halabeharrez egin, *a toque de corneta*; hori jendearekin hitzegin behar da. Baina bizkar-hezur horrek aberasgarria berarekin behar du, eta hori aldatu liteke.

ZER DIRA IHAUTERIAK?

Teoria mailako pentsakizunak utzita, konkretuki dakiguna aztertuko nuke nik, eta dakigun hori garizumaren aurreko epealdi bat direla da. Nik Araitz bailarako Intzan iyoteak (han horrela esaten dute) ezagutu ditut errege egunez ospatzen. Ituren eta Zubietako Joaldunak ere ez dira kinkuagesima igandean ateratzen, nahiz eta jakina, igande eta astelehen hori dire, Zaldunita eta Astelenita, egun nagusiak, asteazkenean hauster eguna izaki.

Garizuma pareta da epealdi horrentzako, frontisa. Baina Domingo de Piñata delakoa ere hor dago. Tolosan piztu nahi izan zen, baina ez zuen aurrera egin. Gu gazteak ginela, gogoan dut nola behin sagardotegian bildu ginen orain Arostegieta kalea denean, eta musikoiei deitzea pentsatu genuen; haiek hart eta kalera. Balkoietatik ura botatzen ziguten, eta aguaziletako buru egiten zuen atzetik; bera busti zuten halere eta gero korrika aldegin behar; musikoek ahal zuten lekura, eta baita guk ere.

Kontua da iñauteria txantxo jazteko izaten direla. Mozorrotzean pertsonak bestela egingo ez lukeena egiten du; Machadok zioen bezala, pertsona mozorrotzen denean ezagutzen da, eta hori egia da, txantxo jaztean autentikoagoa da pertsona. Urteak hiru egun ditu hortaz pertsona den bezala azaltzen dena, eta egun horiek dira egiazkoak, balio dutenak.

IÑAUTERIEKIN JARRAITUZ, NONDIK DATOR PUSKA BILTZEAREN OHITURA ETA ZERGATIK EGITEN OTE?

Hori ez dago jaketerik zehatz-mehatz, baina koplatan *legearekin kunpli dezagun* esaten da, eta gauza jakina da fueroak ohituretan oinarrituak zirela. Hortaz, fueroak baino zaharragoa da puska-biltzea, aintzinekoa. Zergatik egiten den? Dirua eta jakia bildu eta afaltzeko nagusiki, eta bide batez disfrutatzeko.

EUSKAL HERRIA BERRI KANTARIA ETA DANTZARIA OMEN DA. ESAERA HORI ZER DA, MITOA ALA ERREALITATEA?

Orain behintzat ez da horrela, hori bai, baina horrek ez du esan nahi lehen hala ez zenik. Ni uste horretakoa naiz. Hori zergatik aldatu den galde-tzen badidazu, umorea galdu delako izan dela esango dizut. Behin, Tolosan tabernari bati galdetu nion zein aldaketa nagusi ezagutu zuen tabernan, ume-tatik hantxe hazia baitzen, eta umorea galdu zela erantzun zidan. Eta karna-bala umorea da.



Nekazal munduak hobeto eutsi dio ohiturari /
Juan Garmendia Larrañaga. - En: *Lizartzako
ihauteriak*, 1996. - Lizartza: Otsolar Dantzari Taldea,
1996. - 22 p. : il. ; 30 cm. - P. 3-7. - OC. T. 3,
p. 691-693